



## Innobideak-Kudeabide

Ekonomia Sustapeneko, Landa Inguruneko eta Lurralde Oreko Departamentua  
Departamento de Promoción Económica, Medio Rural y Equilibrio Territorial

### Genero ikuspegiaren galdetegi

Galdetegi honek Euskaliteko galdetegian estali gabeko behar bati erantzuten dio, enpresa barruan nola lantzen den genero ikuspegia ezagutzeko. Izaera estatistikoa du soilik, hau da, ez da kontuan hartuko proiektuaren balorazio orokorrerako, beraz, benetako erantzunak ematea eskertuko genuke.

ENPRESAREN IZENA

ESTRATEGIA

Bai Ez \*EA

Ez aplikatzearen arrazoiak

#### E2. Nola hausnartzen eta ezartzen da estrategia

— Modu orekatuan ordezkatuta al daude prozesu horien antolakuntzan lan egiten duten emakumeak?

#### E3 y E4. Nola komunikatu, hedatu, berrikusi eta eguneratzen da estrategia

— Modu orekatuan parte hartzen al dute emakumeek eta gizonak strategiaren komunikazioan, hedapenean, berrikuspenean eta eguneraketan?

\*EA= Ez du aplikatzen

BEZEROAK

Bai Ez \*EA

Ez aplikatzearen arrazoiak

#### C2. Nola garatzen eta merkaturatzen dira bezeroentzako diren produktuak/zerbitzuak

— Kontuan hartzen al dira emakumeen eta gizonen behar eta egoera ezberdinak produktuak eta zerbitzuak garatzean? (bai, ez, ez du aplikatzen)

— Emakumeen eta gizonen behar eta egoera ezberdinak kontuan hartzen dituzten merkaturatze estrategiak erabiltzen al dira?

— Merkaturatze estrategietan, saihesten al da emakumei eta gizoni lotutako rol eta estereotipo kulturalak erabiltzea/indartzea?

#### C3. Nola ekoizten eta banatzen dira produktuak eta/edo ematen dira zerbitzuak

— Kontuan hartzen al dira emakumeen eta gizonen behar eta egoeretan egon daitezkeen diferentziak, zerbitzuak prestatu eta banatu edo ematean?



#### C4. Nola kudeatzen dira erakunde hornitzaileekiko harremanak

— Erakunde hornitzaileen balorazioa egitean, kontuan hartzen al dira haien berdintasun politikak?

\*EA= Ez du aplikatzen

### PERTSONAK

Bai Ez \*EA

Ez aplikatzearen arrazoiak

#### P1. Nola hautatzen ditugu pertsonak, nola ordaintzen diegu eta nola ematen diegu arreta

— Hautapen prozesuetan, kontuan hartzen al da emakumeen eta gizonen oreka enpleguan?

— Ba al dago diferentziarik enpresako gizonen eta emakumeen jasotzen dituzten ordainsarrietan? Osotara, atalen arabera, enplegu moten arabera.

— Bateragarritasuna ahalbidetzeko dauden neurriak gardenak al dira eta emakumeei nahiz gizonen zuzenduta al daude?

#### P2. Nola garatzen ditugu pertsonen ezagutza eta gaitasunak

— Kontuan hartzen al da zer eragin duen bateragarritasun neurrien erabilerak neurri horiek baliatzen dituzten pertsonen garapen profesionalen?

— Egiten al dira estereotipoen alborapena saihesten duten "garapen profesionaleko planak"?

#### P3. Nola konprometitzen ditugu pertsonak enpresarekin

— Saihesten al da konpromisoa identifikatzea presente egotearekin?

— Konpromisoaren definizioan, kontuan hartzen al dira bizitza pertsonala, lana eta familia bateragarri egiteko pertsonen dituzten beharrak?

#### P4. Nola zabaltzen dugu pertsonen lidergo gaitasuna

— Lidergoan trebatzeko estrategietan, kontuan hartzen al da oreka bilatzea emakumeen eta gizonen sustapenean?

\*EA= Ez du aplikatzen



**GIZARTEA**

Bai Ez \*EA

Ez aplikatzearen arrazoiak

**S1. Nola kudeatzen dugu gizarte ingurunearekin dugun konpromisoa**

- Kudeaketa horren barruan jasota al dago emakumeen eta gizonen berdintasunarekiko konpromisoa?
- Jasangarritasunaren aldetik, konpromisoak heltzen al dio bizitza pertsonala, lana eta familia bateragarri egiteko ikuspegiari?


\*EA= Ez du aplikatzen

**BERRIKUNTZA**

Bai Ez \*EA

Ez aplikatzearen arrazoiak

**I2. Nola sortzen dugu berritzeko behar den barruko testuingurua**

- Ahalegina egiten al da emakumeen eta gizonen parte hartzea orekatua izan dadin berritzeko behar den barruko testuingurua sortzean?

--

\*EA= Ez du aplikatzen

**EMAITZAK**

Bai Ez \*EA

Ez aplikatzearen arrazoiak

**R2-R5. Emaitzak bezeroengan, pertsonengan, gizarte**

- Emaitzak baloratzean, kontuan hartzen al da modu orekatuan eragiten ote dieten emakumei eta gizonei?

--

\*EA= Ez du aplikatzen

Genero ikuspegia enpresan hobeto txertatzeko informazio gehiago nahi baduzu, 943 112076 telefono zenbakira dei dezakezu edo email bat bidali [berdintasuna@gipuzkoa.eus](mailto:berdintasuna@gipuzkoa.eus) helbidera.